

PVCa: luzaroan itzaliko ez den polemika

Maidier Etxaide*

PVCa erabileranitzeko material plastikoa da. Dituen aplikazioak desberdinak eta ugari direnez, gizarte aurreratuen ohiko bizitzan gero eta gehiago erabiltzen da. Halaber, plastiko honen osagaiek sortzaketan arazoak direla eta, aurkako erreakzio asko ari da sortzen.

PVC, edo binilo polikloruroa, binilo kloruroaren ($\text{CH}_2=\text{CHCl}$) polimerizazioz lortzen dena, erabileranitz dituen material plastikoa da. Dituen aplikazioak desberdinak bezain ugariak dira: ura gordetzeko botilak, edukiontzia, janariak biltzeko xaflak, kreditu-txartelak, jostailuak, leihoak, pertsianak, boligrafoak, kableak isolatzeko materialak, ospitale-etako hainbat tresna, automobilen piezak, etab. fabrikatzeko erabiltzen baita. Beraz, gaurko gizartean ezinbesteko material bihurtzen ari da nabarmen.


Alabaina, PVCa aurkakotasunak sortzen hasia da; giza sektore askok kritika gogorrak egiten dizkio plastiko honen osagaiek sortzaketan ingurugiro- eta osasun-arriskuak direla eta. Eztabaida ez da berria, arriskugarritasunaren argudioak aspaldidanik plazaratzen hasi baitziren talde ekologisten ahotik. Plastikoen industriak, jakina, gogor erantzun die beti argudio horiei, aurkako tesia frogatzeko ahalegin guztiak eginez. Askok

dira egindako ikerketak, horietariko asko plastikoen industriak berak bultzatuak. Ondorio eta emaitzen dantza horretan era guttietako erantzunak aurki daitezke eta argudio-mota guztien euskarri gisa erabil daitezke. Zenbaitzuek, zuhurtasunaren printzipioari jarraituz, PVCaren erabileran albortzea erabaki dute jada, baina, tamalez, herri eta estatu gehienetan ez da horrelako hauturik egin, gobernuak industriaren presioaren aurrean burua makurtzen dutelako sarri.

PVCaren arriskugarritasunaren inguruko polemika

Plastiko-mota honen ekoizpena kloroaren industri mailako erabilerarekin lotura estua du. Elementu hau erabiltzeak produktuaren bizitza osoan zehar sortzen ditu arriskuak. Kloroa, erreakzionatzeko gaitasun handia duen gai kimikoa da, ingurugiro- eta osasun-arazo handiak ematen dituen (gaixotasunak, kate trofikoaren eta ekosistemak hondatzea, ozono-geruza-

PVCa: LUZAROAN ITZALIKO EZ DEN POLEMIKA



Artibokoa

ren suntsitzea, ...). Bestalde, PVCak plastifikatzaile eta egonkortzaile gisa jokatzeko aditiboak edukitzen ditu. Lehenengoan artean ftalatoak daude, ustez minbizisortzaileak, eta bigarren taldean metal astunak, kadmioa eta beruna direlarik ohikoenak. Zenbait ikerketak aditzera eman dutenez, gai hauek plastikotik janari, edari eta, oro har, ingurunera, emigratzeko gaitasuna dute. Arrisku hau are handiagoa omen da tenperatura igo ahala eta barruko gaia gantz bada. Mikrouhin-labeetan janaria berotzeko erabiltzen den PVCzko xafra finarena da kasurik nabarmenena, PVCaren alde dardenek ere aitortzen baitute migrazioa gertatzen dela. Plastikozko zurrunei (ur-botilei) dagokienez, ordea, ez dago kontu honen inguruko adostasunik. Umeek ahora ditza-keten PVCzko jostailuetan fenomeno bertsua gertatzen dela pla-

PVCk dituen aplikazioak desberdinak bezain ugariak dira: ura gordetzeko botilak, edukiontziak, janariak biltzeko xafiak, kreditu-txartelak, jostailuak, leihoak, pertsianak, boligrafoak, kableak isolatzeko materialak, ospitaleetako hainbat tresna, automobilen piezak, etab. fabrikatzeko erabiltzen baita.

zaratu da duela gutxi. Greenpeacek, hain zuzen ere, kanpaina bortitza egin du gai honen inguruan eta, ondorioz, zenbait herrialdetan, baita Espainian ere, horrelako hainbat produktu, badaezpada, merkatutik erretiratzea erabaki dute.

PVCak kontrolik gabe errez gero azido klorhidrikoa, dioxinak eta oso toxikoak diren substantzia organokloratuak sortzen ditu. Beraz, material honekin eraikitako egitura oro oso toxikoa izan daiteke sute batek harrapatzen badu. Etxeetan eta eraikuntzetan usu gertatzen diren suteetan pentatu besterik ez dago arriskuaz ohartzeko. Hamaika ikerlan egin dira eraikin eta instalazioetan gertaturiko suteetan dioxinak eta kloroaren eratorriak aireeratzen direla frogatzen dutenak. Halaber, PVCak zabortegetan sortzen dituen arriskuak ere gogoan izatekoak dira, hauetan, bertako prozesuen ondorioz, kontrolatu ezinezko konposatu organokloratuen emisioak gertatzen baitira.

Adituen Batzordearen txosten ustela


Gaiaren polemika ikusita eta zein ildori jarraiki erabaki aurretik,

BABESLEA



Eusko Jaurlaritza

Lurralde Antolamendu,
Etxebizitza eta Ingurugiro Saila



arazoa aztertuko zuen adituen batzorde bat eraikitzea erabaki zuen Espainiako gobernuak. Batzordea hainbat ministeriotako, industrietako eta zientzialarien kontseiluetako ordezkariak osatua zen eta haien alboan talde sindikal eta ekologisten ordezkariak ere eseri ziren. Eginiko lanaren emaitza gisa, batzordeak txosten bat tajutu zuen gizarte-talde batzuen adostasunik lortu ez zuena. Txosten honek PVCari arazo gutxi aitortzen dizkion arren, ez du oraindik azkenburuko onarpenik jaso, horrek lege-erabakiak hartu beharreko kinkan ipintzen duela gobernu eta hori ez da gauza samurra plastikoaren industria bortitza atzean edukita. Txostenaren arabera, ez dago PVCa baztertzeko arrazoirik, bere ekoizpenean, erabileran eta eliminazioan beharrezko maneiubaldintzak betetzen badira. Haatik, zabortegeak eliminazio-bide desegokia dela aitortzen du, tokian substantzia arriskutsuak aska daitezkeelako eta, beraz, zabortegeak azken aukera izan daitezela gomendatzen du. Emaitza hauek, jakina, berehalako erantzuna eta aurkakotasuna sorrarazi dute PVCaren kaltegarritasuna frogatuz josten duten gizarte-taldeetan. Antza denez, batzordeak ez ditu inola ere kontuan hartu kaltegarritasunaren frogak gisa ekologiketik aurkeztu dituzten ikerlanak. Espainiako gobernuak, prekaizioaren printzipioa mespretxatuz, interes ekonomikoen aurrean makurtzeko asmotan da. Bistan da ekologiketik aurkako kanpainak eginez jarraitu beharko dutela eta polemikak bere horretan iraungo duela. Azkenean, eta beti bezala, kontsumitzailearen esku geratuko da aukera egitearen ardura.

* HAIZEA Ikerketa eta Dokumentazio Zentroko kidea.

